

EUSFAMILIA EGITASMOAREN DEKALOGOA

1. Benetako euskal giroa transmititzea

Euskal giroa bizitzea da egitasmoaren funtsa. Gure hizkuntza eta kultura bizitzeko aukera izatea. Haurrei euskararen balio eta garrantzia transmititzea.

2. Elkarrekin euskaraz gozatzea

Etxean edo kalean, elkarrekin euskarazko jolasetan parte hartu modu dibertigarrian: Mahai jolasak, ipuinak... Hauek, euskaraz egitea ezinbestekoa da.

3. Ipuinak + Udal liburutegira disfrutatzea

Euskarazko liburu edo ipuinak elkarrekin irakurtzea. Honek, euskararen arteko lotura indartzen laguntzen du. Horrela, euskarazko hitzak eta esamoldeak modu naturalean barneratuz. Horrez gain, udal liburutegira irteera egin daiteke, bertan euskal liburu eta ipuinak irakurtzeko aukera izango dugu.

4. Euskarazko abestiak abestea

Abestien bitartez euskaraz abesteko aukera izango dugu. Horrela, euskarazko hitzak ahozko kulturaren parte bezala jasoko ditugu.

5. Ibilaldiak euskaraz

Euskaraz hitz eginez, familian ibilbide edo paseotxoak egitea aukera polita da. Euskara naturan eta egunerokotasunean integratuz; zuhaitzen izenak, hostoenak, animaliak...

6. Teknologia saihestea

Egonaldian **teknologia mugatzea** gomendatzen dugu, elkarrekin egoteko eta euskarazko jardueretan parte hartzeko denbora gehiago izan dezagun.

7. Euskarazko giroa eta tradizioak ezagutzea

Euskara ez da soilik hizkuntza, kultura eta tradizioa ere bada. Horregatik, euskal ohiturez eta tradizioez hitz egitea garrantzitsua da.

8. Errespetua eta laguntza

Euskara lehen hizkuntza ez den kasuetan, ez izan presarik! Elkarrengandik ikasten eta errespetatzen jarraitzea garrantzitsua da. Euskara partekatzekeo aukera bezala aurkeztu, ez betebeharrak edo oztopo gisa.

9. Ongietorria euskaraz.

Irribarrearekin eta naturaltasunez. Euskarari eutsi, baina beldurrik gabe: ez aldatu hizkuntza automatikoki. Ulertzen lagundu bai, baztertu ez. Poliki eta argi hitz egin. Keinuak, testuingurua eta objektuak erabili, hizkuntza ez baita hitzak bakarrik.

10. Akatsak normaltzat hartu

Zuzentzea baino gehiago animatzea lehenetsiz.